

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak foru-interesekotzat jo du Sarriopapelek Leitzan egingo duen 34 milioi euroko inbertsioa

Enpresak paper termiko eta metalizatuak egiteko ahalmena eta paper horien sorta handitzeko jarduerak egingo ditu

Martes, 09 de septiembre de 2014

Nafarroako Gobernuak, gaurko bileran adostu duen akordioan, Sarriopapel y Celulosa SA enpresaren inbertsio-proiektuak foru-interesekotzat jo ditu; zehazki, enpresak 34 milioi euro jarriko ditu Leitzako instalazioetan paper termiko eta metalizatuak egiteko ahalmena eta paper horien sorta handitzeko.

Foru-interesekotzat jotzen dira, zehazki, Nafarroako ekonomia-, gizarte- eta lurralde-garapenerako garrantzitsuak diren proiektuak; adierazpen hori enpresa- eta lanbide-jarduerak martxan jartzeko izapide administratiboak sinplifikatzeko neurriei buruzko abenduaren 9ko 15/2009 Foru Arauan dago jaso.

Proiektu horiek ez dute diru-laguntzarik jasotzen, baina izapide administratiboak egiteko denbora erdira jaisten da. Hain zuzen ere, murrizten dira, batetik, jarduera ezartzeko prozedura administratiboak, salbu eskariak eta helegiteak aurkeztekoak; bestetik, hirigintza-plangintza bideratzeko, onartzeko eta egikaritzeko epeak; eta azkenik, obrak egiteko eta instalazioak martxan jartzeko baimenak emateko epeak.

Sarriopapel y Celulosa SA enpresa 1959an ireki zuten Leitzan. Lecta izeneko Europako paper-talde nagusienetako batekoa da. Leitzan guztira 450 langile daude, enpresan batez beste 26 urtean lanean aritu direnak. Gainera, zeharkako 2.250 lanpostu sortzen ditu, paper-sektorean lanpostu zuzen bakoitzeko zeharkako bost baitaude. Egingo den inbertsioak paper-fabrikako enplegua egonkortu eta jarduerari eustea bermatuko du.

Gaur egun, balio erantsi handia duten eta goi-mailako teknologiarekin landu behar diren hainbat paper berezi egiten dituzte (autokopiakoa, termikoa, metalizatua eta distira handiko iztukatua), guztira 120.000 tona baino gehiago.

Horrez gain, enpresak gas naturaleko kogenerazio-instalazio bat dauka, 7,2 Mw-ekoa, eta baita ingurumen- eta energia-ziurtagiriak ere, lehengaia (egurra), ura eta energia modu iraunkorrean kudeatzea ziurtatzeko.

Orain arte, Nafarroako Gobernuak 2,9 milioi euro inguruko diru-laguntzak eman dizkio enpresari.

Foru-intereseakoak diren bederatzin inbertsio-proiektu

Sarriopapelen proiektu hori Nafarroako Gobernuak legealdi honetan foru-interesekotzat hartu duen bederatzigarrena da. Aurrekoak enpresa hauenak ziren: [Alinter](#), [Harivenasa](#), [Uhalrod,T+C](#), [Uvesa](#), [La Protectora](#), [Emauseko Traperoak eta Hermanos Cirauqui](#).